

GrAL PROZEDURA 2019-2020 COVID-19a:

2019-2020ko GrAL prozedura (ekaina)

Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduak

OHARRA: aurtengo ekaineko GRAL defentsak izaera berezia izango dute, COVID-19 epidemiak sortu duen egoeraren aurrean hartu diren babes neurriak direla eta. Prozedura honetan epe eta datei eutsi zaiela ikusiko duzu, baina **matrikula** eta **defentsa** bera **modu telematikoan** bideratuko direla jakinarazten zaizu.

1. Minor bakoitzaren defentsa egunak:

Ekainaren 17a: EUSKARA HEZKUNTZARAKO TRESNA

Ekainaren 18a: HEZIKETA BEREZIA

Ekainaren 19a: HAUR HEZKUNTZARAKO TAILERRAK

Ekainaren 22a: LEHEN HEZKUNTZARAKO PROIEKTUAK

Ekainaren 23a: ATZERRIKO HIZKUNTZA

2. Maiatzak 20rako, Tribunalak izendatu eta zuzendariei jakinarazi.

3. Maiatzaren 27tik ekainaren 4a bitarte, ikasleak GRAL lana eta posterra gordailura bidali beharko ditu eta, ekainaren 1a eta 5a bitarte, ikasleak matrikula eta defentsa eskaera GAUR bidez egin. [! PAUSO BAKOITZAREN ORDENA MANTENTZEA OSO GARRANTZITSUA DA**]**

3.1. Gordailura bidali: GRAL lana eta posterra pdf formatuan webgunean dagoen formulario bitartez atxikiturik bidali beharko duzu. Hona hemen pauso hori burutzeko linka eta azalpenak:

<https://www.ehu.eus/eu/web/hefa/gralen-matrikula>

3.2. Matrikula egin: Idap-a erabiliaz, GAUREn sartu eta GRAL ikasgaiaren automatrikula burutu behar duzu. [**! KONTUZ: EZINBESTEKO DA, LEHENIK, 3.1. PUNTUAN AIPATUTAKO DOKUMENTUAK FORMULARIO BIDEZ BIDALTZEA GERO MATRIKULA EGIN AHAL IZATEKO**]

3.3. Defentsa eskatu: matrikula egin ondoren, **BEHARREZKO DA** defentsa eskaera egitea. Horretarako, GAUREn Idap-arekin sartuaz. Honi buruzko azalpen zehatzak honako linkean dagoen “GAUR aplikazioan ikasleentzako eskuliburua” dokumentuan aurki ditzakezu:

<https://www.ehu.eus/eu/web/hefa/lehen-hezkuntza-eta-haur-hezkuntza-graduak>

Izenburua aldatu behar bada, ikasleak defentsa eskaera baino lehenago egin beharko du aldaketa.

4. Zuzendariak, defentsa eskariari erantzun baino lehen, GrAL lanaren izenburua berrikusi eta, hala dagokionean, zuzendu dezake. Ikasleak defentsa eskatua duenean, eta zuzendariak eskaera hau erantzun aurretik, egin behar da hori.

5. Zuzendariak **defentsa eskaerari erantzun eta txostena igo GAUR** plataforman (ekainaren 10a baino lehen). “GRALa defendatzeko onarpen txostena” inprimakiaren esteka hemen duzu eskuragarri:
https://www.ehu.eus/documents/4998110/14564578/zureNANzenbakia_GRAL_onarpen.pdf
6. Zuzendariak bere zuzendaritzapeko ikasleei tribunala jakinaraziko die eta, era berean, zuzendariak bere tribunalkideei helaraziko die ikasleek gordailura bidali duten lan bertsio bera.
7. Behin tribunalean ordutegia adostu ondoren, zuzendariak **ikasleari jakinaraziko dio defentsarako eguna eta ordua**, baita **Collaborate** plataformaren bitartez bideokonferentziaz defentsa egin ahal izateko **LINK SARBIDEA** ere.
Horri buruzko gida eta pausuen azalpenak webgunean eskuragarri dituzue (maiatzaren 27tik aurrera):

Tribunalkideentzat: “[GrAL defentsa birtualerako eskuliburua](#)”

Ikasleentzat: “[GrAL defentsa birtualerako bideotutoriala](#)”

8. Tribunalak, ezarritako irizpideen arabera, **kalifikazio prozesua burutuko du (ekainaren 17 eta 28 bitarte)** eta GAUREn argitaratuko du.